

**EUDELeKO BATZORDE ERAGILEAK EGINDAKO GOGOETAK, UDAL
ADMINISTRAZIOAREN ARRAZIONALIZAZIO ETA IRAUNKORTASUNARI
BURUZKO ABENDUAREN 27KO 27/2013 LEGEA ARGITARATU ETA GERO**

- 1.- Udal Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legeak udal gobernuaren erreforma sakona dakar, batik bat, udal erakundeen iraunkortasuna bermatzeko asmoz. Hala ere, proposatutako erabaki-multzoa oso ahalegin lausoa da, herri-erakundeen antolaketa-egitura arrazionalizatzeari eta bere eskumen-sistema berrantolatzeari dagokienez.
- 2.- Udal autonomiaren bermearen ikuspuntuaren arabera, UAAIL udal autonomiaren printzipioa nabarmen ahultzen duen arauzko testua dela esan daiteke. Gainera, bere eskumenak argi eta garbi murrizten ditu, 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, derrigorrezko zerbitzu minimoen prestazioa esku hartzeko erabaki-multzo baten menpe jartzen du eta, azkenik, herri-erakundeen gaineko finantza-tutoretza handitu nahi du.
- 3.- Hala ere, Finantza-iraunkortasunari buruzko Legearen joera nabarmen hau Euskadiko herri-erakundeen mesederako izan liteke. Izan ere, Konstituzioaren amaierako lehenengo xedapena, Autonomia Estatutua, Kontzertu Ekonomikoaren Legea eta, azkenik, aurrekontuen egonkortasun eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2013 Lege Organikoaren hirugarren xedapen gehigarria oinarritzat hartuz, hainbat xedapen gehigarritan aurreikusitakoaz baliatuz, Euskadik aipatutako arauzko esparru horretatik eratorritako berezitasunen aitortpena lortu dezake.
- 4.- Alabaina, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen bigarren xedapen gehigarriaren eta Udal Ogasunen Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren testu berriek eta UAAILren xedapen gehigarriko araudi berriak Euskadin Lege hau arauzko koadroa osatzen dute. Horren arabera, Lege horren ezarpenetik eratorritako inpaktu gogorrenak Euskadin moteldu egiten dira, eskudun euskal herri-erakundeen berezko eskumenak direla aitortuta dagoelako.
- 5.- Are gehiago, okertzeko arriskurik izan gabe, udal gobernuak arau sortzeko dituzten eremuak (edo autogobernua) Euskadin handitu egin direla argi eta garbi esan daiteke, Legearen salbuespenetatik abiatuta. Inoiz ez dute izan euskal herri-erakundeek, botere politikoari dagokionez, horren maila handirik, behinik behin 1978tik.
- 6.- Egia esan, udal autonomiaren ezaugarrien artean, alde batetik, eskumenak daude (edo udal botere politikoak) eta, bestetik, finantzazioa (edo eskumen horiek gauzatzeko esleitutako baliabideak). Lege honen arabera, gai biei buruzko erabakia, ikusi den bezala, euskal herri-erakundeena da. Izan ere, erakunde horiek udal autonomia indartu dezakete eta euskal autogobernua Udal Autonomiaren Europako Gutuneko printzipioen eragile sendo bihurtu.

7.- Honenbestez, erronka oso handia da. Eta orain, inoiz baino gehiago, Euskadiko udal gobernuaren berezko eredia ("esparru autonomoa") zehaztuko duen Udal Legea beharrezkoa da. Eredu hori ez da UAAILk bultzatutakoa izan behar eta horretatik urrun egon behar du, bestelako edukia daukalako.

8.- Edonola ere, UAAILk eraikitako euskal berezitasunen ereduak, batez ere, nolabaiteko "foralizatorantz" jotzen du. Hala ere, ikusitakoa bezalako eremu jakin batzuetan, eskumenak, foru-organoen ordeztu, euskal herri-erakundeetan edo araudi autonomikoak zehaztutako herri-erakunde eskudunetan daudela onartzen du.

9.- Udal gobernuaren eredian Euskadin gertatu daitekeen zatiketa herri-erakundeen arteko ekintzaren bitartez konpondu daiteke eta hala egin behar da. Horretan batzen dira herri-erakunde guztiak (Eusko Jaurilaritza, Foru Aldundiak eta EUDEL) eta Eusko Legebiltzarreko indar politiko guztiak. Erronka tamaina handikoa da eta ez da alperrik igarotzen utzi behar, herri-erakundeen kalitatean eta herritarren zerbitzuan egongo den euskal udalen eredu sendoa diseinatzeko Euskadin daukagun aukera handi hau.

10.- Horretarako, esan bezala, Udal Legea gaur egun beharizan objektiboa da, baina herri-erakundeen eta politika arloko adostasun sendorik gabe ez da berez nahikoa izango. Horrela izanda ere, etorkizuneko Udal Legea koordinada horietatik abiatu behar da; hau da, euskal Udalen botere politikoa sendotzea, finantzabide nahikoaz hornitzea eta haien finantza-iraunkortasuna zaintzea. Euskadiko hiru gobernu-mailen giltzadura (Autonomia Erkidegoa, Lurralde Historikoak eta Udalerriak) itxi behar da behin betiko, lurralde arteko kohesio eta elkartasuna lehenetsita.

11.- Hala ere, ezin da baztertu UAAILk ezarritako udal administrazio-ereduak, nolabait, euskal legegileak hobetsi dezakeen amaierako diseinuaren alderdi jakin batzuk "kutsatu" ditzakeela. Izan ere, ikusi den bezala, Euskadiko udaletan zuzenean ezartzen diren xedapen-kopuru handi bat dago. Eta horrek herri-erakundeak nabarmen kezkatu behar ditu, behinik behin Euskadiko udalak.

12.- Oinarrizko arauditzat jotzen denez, udal erregimen juridikoaren alderdiak zehazten dituzten UAAILren aurreikuspenak, salbuespenak salbuespen, euskal udalerrietan erabat ezarri daitezke. Aurreikuspen hauetan, honelako moduko alderdi garrantzitsuak sartzen dira: herri-erakundeen arauak (salbuespenen batekin), antolakuntza-arauak (ia salbuespenik gabe) eta udal erakundeen zerbitzura dauden langileen arauak (baita salbuespenen batekin ere).

13.- UAAIL ezartzean ezin da ahaztu Foru Aldundiei eskaintzen dien eginkizun garrantzitsua, izan ere, izaera bikoitza dute: batetik, erregimen orokorreko diputazioen "erakunde baliokideak" dira eta, bestetik, finantza-tutoretzaren eskumenak eta aurrekontuaren egonkortasuneko nahiz finantza-iraunkortasuneko arauditik eratorritakoak gauzatzen dituzten administrazioak dira. Eta puntu honetan, ezinbestekoa da ikustea nola burutuko dituzten haien zereginak eta modu homogeneoan ala heterogeneoan gauzatuko diren, Lurralde Historiko-motaren arabera. Euskadin, udal autonomiaren kalitatearen zati handi bat premisa hauen arabera izango da.

14.- Bestetik, ezin da ahaztu Autonomia Erkidegoak (guztion herri-erakundea) Euskadin udal gobernuaren eredu propioa ezartzean erronka handia daukala, Udal Legea onartzearen bidez eta legeak zein arauak aldatuta, kalitate demokratikoa daukan eta eraginkorra den sistema kohesionatua eskuratzeko asmoz, herri-erakundeen bitartez lurraldeko eta herritarren beharriaz lotuta.

15.- Euskadiko udalen etorkizunaren zati bat aurreko gakoetan datza. UAILk haien gainera eragina dauka alderdi askori dagokionez, baina dimentsio traumatikoenetan edo gogorrenetan, ereduaren ezarpena, neurri handi batean, eskudun euskal herri-erakundeek eta eragile politikoek egingo dutenaren menpe egongo da. Hona hemen etorkizuneko erronka handia: UAILren alderdi atzerakorrenak ekidin, alde batera utzi eta gainditzeko diren bitartean, uste sendoak dauzkan udalen antolakuntzaren aldeko hautua egitea, udal autonomia bera, erretorikako argudioa izan ordez, ardatz hartuta.